
ZABORRA UZTEKO EDUKIONTZI PRIBATUAK BIDE PUBLIKOAN JARRI ETA HORIEK ERABILTZeko ORDENANTZA ARAUTZAILEA

Udalbatzarrak 2001.04.05ean onartua

HITZAURREA

Ordenantza honen xedea da, udal eskuduntzen arloaren barruan kalean ipintzeko zaborra uzteko edukiontzi pribatuen jabeek eskatu beharreko gutxieneko baldintzak arautzea. Era honetan nahi da arautzea eta minimizatzea aipatutako edukiontzien eragina kaleen garbiketan eta pertsonen eta automobilen trafikoan.

XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua.

Udalak emango ditu edukiontziak ipintzeko baimenak. Udalari edo Debagoieneko udalen mankomunitateari bideratuko zaizkio baimen eskabideak, baina baimena udalak emango du.

Baimenak kasu honetan baino ez dira emango: Debagoieneko udalen mankomunitateak kudeatzen duen zabor bilketako zerbitzuaren bidez nahikoa ez denean eskatzailearen beharrezanean erantzuteko.

2. Artikulua.

"Prekario"ko izaera izango dute baimenek eta Arrasateko Udalak kendu izango ditu, udalaren iritziz txarto erabiltzen denean edukiontzia edota orduan garaian jarritako edukiontzia jartzeko arrazoirik ez dagoenean dagoeneko.

3. Artikulua.

Edukiontzia jartzeko behar den beste edozein baimen tramitatzea eskatzailearen ardura izango da.

4. Artikulua.

Edukiontzia jartzeko egin behar den edozein obra, eta edukiontzia bera erostea eskatzailearen ardura izango da, eta haren kontura joango da.

5. Artikulua.

Arrasateko Udalak eta Debagoieneko udalen mankomunitateak adieraziko dute zer nolako edukiontzia jarri ahal den, eta ipintzeko eta kokapenerako baldintzak.

6. Artikulua.

Edukiontzia, enpresaren eraikuntza barruan, gutxienez hilean behin garbitu behar da, eta han uzten den zaborra itxitako poltsetan utziko da.

7. Artikulua.

Halako edukiontzietan utzitako zaborra biltzeko, jabeek ezingo dituzte bide publikora atera 20:00ak baino lehen eta goizeko 9:00ak baino lehen eraman beharko dituzte.

8. Artikulua.

Ordenantza hau onartu baino lehen kalean zeuden jabetza pribatuko edukiontzietako jabeek baimena eskatu beharko dute eta Ordenantza honetan xedatutakoa bete."

AZKEN ERABAKIA

Ordenantza hau Toki-Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean, 11/1999 Legearen bidez aldatua, agindutakoaren arabera jarriko da indarrean.